

KANALAK

Proiektuaren hasieran, gure produktua zabaltzeko eta ezagutzera emateko webgune bat sortzea pentsatu dugu eta horretarako, Aimarrek sortu, diseinatu eta koordinatuko du. Bertan, gure produktuen informazio ugari egongo da, gurekin kontaktuan jartzeko aukerak hain zuzen, izan ere, telefono zenbaki bat eta korreo elektronikoa bat jarriko dugu eta bertatik bezeroak gurekin kontaktuan jarriz, nahi duen diseinua eskatu ahalko luke.

Gure enpresak arrakasta izan dadin enpresak komunikatzeko eta segmentu-merkatuei bere balorezko kanala helarazteko modua eraginkorra izan behar da. Gure enpresan bi motako kanalak izango ditugu, zuzena, bezeroek webgunearen bitartez erosiz gero, eta zeharkakoa diseinu eksklusiboa eskatuz gero, zuzeneko kanala bihurtuko da.



Negozioen kasuan zuzeneko kanalak erabiliko ditugu, hain zuzen ere, gu izango gara beraiekin kontaktuan jarriko garenak, gure altzariak eskaintzeko eta beraien negozioetara egokitzeko. Beraiek nahi izanez gero, haien bulegoetan bildu gaitzke, gertu aurkitzen bagara. Bestela bideo-deiak egiteko aukera ere eskura izango dute.

Komunikazio kanaletan berriz, sare sozialak erabiliko ditugu, Instagram batez ere. Bertan gure produktuak ezagutzera emango ditugu, gure diseinuen irudiak argitaratuz. Baita gure bezero potentzialei ere gure produktua aurkeztuko diegu eta publizitatea egiteko, 300€-ren truke, eskatuko dugu.

Banaketa-kanala berriz, "Stop and Go Transporters" garraio enpresarekin egingo dugu eta beraiek jarritako helbidean utziko dute, berdin du Europako zein lekutan aurkitzen diren. Zama handikoa denez, bezeroak nahi badu, 15€-engatik etxean jarriko dizkiegu beraientzat eroso izan dadin. Europatik kanpo saltzekotan, altzariak saldu nahi ditugun herrialdean, denda fisikoa jarri beharko genuke, izan ere, gure enpresaren helburua kutsadura gutxitzea delako eta hegazkinkak eta bestelakoak erabiltzea, kontraesan bat izango litzateke.